

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

27/2019 Mozioa, martxoaren 28koa, Euskadiko Landa Garapenerako Planan jasotako mendialdeetako eta muga natural nabarmenak dituzten beste aldeetako konpentsazioko kalte-ordain laguntzei buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko martxoaren 28an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

27/2019 Mozioa, martxoaren 28koa, Euskadiko Landa Garapenerako Planan jasotako mendialdeetako eta muga natural nabarmenak dituzten beste aldeetako konpentsazioko kalte-ordain laguntzei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, foru-aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan arituz, proposatu eta negoziatu dezala Landa garapenerako hurrengo Planan zonalde onuradunen mugatze berri bat, kontzeju-dermioaren arabera, bai eta Arabaren errealitate fisiko eta agronomikora egokitako irizpide berriak (errolda, lursailen kokapena...)

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote behar bezala hornitu dezala konpentsazioko laguntza horretara bideratutako aurrekontu-partida.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote errekonozitu dezala Euskal Landa Garapen Planaren hamahirugarren neurria "Natura aldetik mugatuta dauden zonaldeetarako edo mugapen espezifikokoak dituzten beste zonalde batzuetarako ordainketak" garrantzi handikoa dela Araban despopulazioa saihesteko; lagundu egingo du Europako Bataunak onartutako zerrendan onetsitako Arabako herrietan neurri hori zabaltzeko.

4. Arabako Batzar Nagusiek mozio hau bidaliko diote Eusko Jaurlaritzari, laguntza honen onuradun diren zonaldeetako kontzeju eta udalei eta UAGA nekazarien sindikatuari.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 28a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA